

Ur-eske dauzkat piper, tomate,
uraza ta baina aldakak;
goiz-illuntzetan alai dituzte
artzen nere ur-parrastak;
ortako ditut gomazko *ziri*
biurkor luze bakanak,
jolaska legez arlo aundia
ureztatzen didatenak.

Ardura xamur zaitu dezadan
nere etxalde borobilla,
orla neguan ez naiz joango
auzora bizikai billa.
Etxe ostean duzu baratza
azoka zelai sotilla,
bai eta ere urte barruan
nitzat lan-leku ez illa.

ENE POTXOLO

*Urtetxo bat ez besterik gure ume pitiñak. Eder bai dala
seaska barnean, eta gure besoetan! Denok gaitu txorarazten.
Lan ostean, nolako orduak ematen ditugun geure potxolo oni
begira!*

Doiñu: «Goizian goizik... ».

Gure potxolo,
gure maitea,
oso zaitugu geurea.
Lotan zaudela
dira eztiak
aingeru orren begiak.

Orain gau da-ta,
egin zuk lo, lo,
geure begien potxolo.
Ama ta biok
alboan gagoz
zu bete nairik pa goxoz.

Ezpain ertzean
irri lorea
nola daukazu, maitea!
Zeure anka txu
zuri txikiak
dabiltuz goxo biziak.

Soin txiki ortan
mai lez beñola
ezar genizun odola;
geurea zera
oso geroztik:
ez dizut, laztan, gezurrik.

Geure potxolo,
geure maitea,
oso zaitugu geurea.
Lotan zaudela
dira eztiak
aingeru orren begiak.